





INIT CORPORATION FOR HUMAN DEVELOPMENT, S.L:

INITHEALTH CORONACARE, Covid-19a kudeatzeko eta prebenitzeko abian jarri den lehenengo soluzio integratua



Beatriz Arraibi Pereda
barraibi@theinit.com
688628182

<https://www.inithealth.com/coronacare/>

-
-  **Jarduera:** Enpresa-ekimen berriak abian jartzen eta garatzen dituen enpresa-taldea da, eta horretarako, baldintza eta egitura korporatiboak sortzen ditu enpresen etorkizuna eta enpresak garatzen diren tokiko ingurunean aberastasuna sortzeko.
 -  **Sektorea:** Enpresa-kudeaketako beste aholkularitza-jarduera batzuk
 -  **Enplegatutako pertsonen kopurua:** 3
 -  **Lokalizazioa:** Uribitarte, 6, 2^a Planta, 48001 , Bilbao - Bilbo, Bizkaia

NAZIOARTE mailako berrikuntza **ERRADIKALA****Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?**

Soluzio teknologikoa aplikatzeak zerbitzu osagarri eta integratuen sorta bat gaitzen duelako: osasun plan pertsonalizatuak (COVID-19 ziurtagiriak, testak eta bideo-kontsultak formatu digital eta irisgarrian egiteko aukera), ohiturak eta bizitza osasungarria hobetzera bideratua. INT izan zen pandemiaren ondoriozko erronkei erantzun azkarra eman zien lehen enpresetako bat, batik bat osasun-arloaren digitalizazioa.

KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA

Osasunaren arloko beharrei erantzuteko zaintza-planak sortzeko aurretik duen esperientzia teknologikoa eta ezagutzak baliatuta, INIT TALDEAK pandemiari erantzuteko soluzio teknologikoa garatu du oso denbora laburrean. Euren helburu argia da "sortzen ari den horretan lider" izatea, eta horren indargune nagusia azkarrak izatea da, gizartearen beharrezan aurrean jarrera proaktiboan oinarrituta.

COVID-19aren pandemia globalaren lehen olatuan, alarma-egoeraren deklarazioak eta ondorengo konfinamenduak agerian utzi dute ahalbidetu egin behar dela osasun-eragileen eta herritarren arteko komunikazioa eta lotura.

InitHealth plataforma digitalaren bidez, erabiltzaileek osasun-plan pertsonalizatuak izan ditzakete. Hasiera batean, osasun-administrazio publikoentzat zen, baina langileen osasunarekin kezkatuta dauden era guztietako erakundeentzat (enpresak, hezkuntza-erakundeak, udalak...) da erabilgarria; bereziki garrantzitsua da Sars-CoV-2 kudeatzeko eta prebenitzeko. Erabiltzaile bakoitzarentzat honako hauek sortzen dira: osasun-profil espezifiko bat, jarraipen-sistema bat, eta osasun-profesionalen talde batekiko konexioa.

Balio-proposamena modu osagarrian garatzeko, lankidetzan aritu dira zerbitzu teknologikoetan esperientzia duten enprekin eta harremanetan daude estatu mailako 300 startup baino gehiagorekin eta tokiko inkubagailuekin (Bilbao Berrikuntza Faktoria), ideia osagarriak erakartzeko eta beren zerbitzuetan txertatzeko.

Berrikuntza horren emaitza nagusia da InitHealth plataformaren erabiltzaileak nabarmen ugartu direla eta jarduera eta negozio-aukera berriak sortu direla, baita tokiko posizionamendua sendotu ere.

INIT Taldeak badu pandemiaren aurretiko berrikuntza-historia, eta esparru publikoko hainbat osasun erakunderekin aktiboki aritzen da lankidetzan estatuko eta nazioarteko ospitaleetarako I+G proiektuetan.

Aurrekariak

Osasun-planak diseinatzeko tresnak garatzen esperientzia duen enpresa, berrikuntza-sistema propioa duena, osasun-arloko hainbat lerrotan zehaztutako asmo eta ikuspegia dituena. COVID-19ak planeta osoaren osasuna eta ekonomia apurtu ditu; mundu-mailako pandemiaren eta estatu mailako alarma egoeraren deklarazio betean, INITek erantzun azkar bat bultzatu du kutsatzeen kurba geldiarazten laguntzeko, detekzio goiztiarrera bideratutako konponbide teknologiko baten bidez.

Erronka

Garapen horren bidez, INITek gizartearen zerbitzura jarri nahi ditu kutsatzeen goranzko joera geldiarazteko eskuragarri dagoen teknologia eta ezagutza guztia, eta, horretarako, osasuna, ekonomia eta osasun zerbitzuen funtzionamendu normala ziurtatzen du, herritarrekiko bi norabideko kanal baten bidez. Era berean, gizartean eHealth kultura sortu nahi du, laneko eta osasuneko prebentzioaren garrantziaz kontzientziatzeko eta ohitura osasungarriak sustatzeko palanka gisa.

Ekintzak

1. Erantzun azkarra baliabideak esleitzean: alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz, 25 pertsonako talde bat antolatu zuten, konponbide bat garatzeko.

- Tresna garatzea eta kokatzea: COVID-19a bideratutako aukera teknologikoak identifikatzea, eta plataforma osoa erronkaren zerbitzura jartzea.

- Irudi korporatiboa sustatzeko prozesuaren komunikazio sendoa. Metodologia arinak erabiltzea proiektua kudeatzeko: Lean Start-Up.

- Gutxieneko Produktu Bideragarria merkaturatzea.

2. Hobekuntza etengabea: eraginaren ebaluazioa KPI bidez, tresnaren erabilera, erabiltzaile potentzialak eta erabiltzaile aktiboak neurtzeko. Aplikazioaren erabiltzaileak ematen duen informazioa erabiltzen dute input gisa, produktua estrategikoki garatzeko eta hari lotutako zerbitzuak diseinatzeko.

Lortutako emaitzak

• Plataforma teknologikoan erabiltzaile gehiago izatea, COVID-19a duten pazienteak diagnostikatzeko eta urrutitik kudeatzeko zerbitzu integralaren bidez.

- Milioi bat erabiltzaile baino gehiago ditu InitHealth plataforman (IH CoronaCare konponbidearen oinarria)

- Nazioarteko merkatu berriak sendotzea (Latinoamerika)
- Mexikon merkatua irekitzea: Inithealth CoronaCarek ezagutzera eman du eta merkatua sortu du Mexikon. Bertan, lanean hasi da enpresa multinazionalekin eta herrialdeko farmazia-enpresa garrantzitsu batekin.
- Euskadiko posizionamendua indartzea eta presentzia estatu-mailan.

KASUAREN KATEGORIZAZIOA

Berrikuntza-eremuak:

- Produktua: Software-a.
- Prozesua: Berrikuntzaren Kudeaketa.

Aukera arloak:

- 1 - Eraldaketa teknologikoa/digitala
- 2 - Gizarte eraldaketa eta konpromisoa

Beatriz Arraibi (Komunikazioko zuzendaria)

“Ausardia eta jarrera dira arrakastaren gakoak. Garen bezalakoak izatera iritsi ez bagina, berrikuntza erronkak konpontzeko modu gisa sentitu ez bagenu, sinetsi ez bagenu eta gure asmoa geure egin ez bagenu, ez genuen lortuko. Hori guztia ehun pertsonen DNAtik abiatzen da. Garen modukoak gara, oso argi genuen aurrera egin behar zela”.

Beatriz Arraibi (Komunikazioko zuzendaria)

“Osasun-kanal digitalak sortzea ingurune askotan aplikatu daitezke; beste testuinguru batzuetan ere aplikatu daitezke, gizartearen esparru guztietan osasunarekiko konpromisoa indartzeko”.

Innovation Index Score: ★★★★★☆

Lerrokatze estrategikoa: ★★★★★★

Kreatibitatea: ★★★★★★

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★★★★★

Sistematizazioa: ★★★★★★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★★★★★

Efizientzia emaitzetan: ★★★★★★

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★★★★★

★

Eragina: ★★☆☆★★

Aintzatespena: ★★★★★★